

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behin betiko onespina ematea eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren ordenantza fiskalaren aldaketari

Udalbatzak, 2025eko otsailaren 18an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onespina ematea guneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren ordenantza fiskalaren aldaketari. Erabaki hori jendaurrean egon den bitartean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko erabaki bihurtu da, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Foru arau horrek 16.4 artikuluan eta TAOLek 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, I., II. eta II. eranskinak aldatzen dira, honela:

I. ERANSKINA

PREZIO PUBLIKOAREN ZENBATEKOA

8. tarifa. Eguneko arretarako landa zentroak.

8.1. tarifa. Arreta pertsonala emateko zerbitzua: 130,18 euro hilean.

Zerbitzu osagarriak:

8.2 tarifa. Otordu zerbitzua: 88,72 euro hilean.

8.3. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua: 8,20 euro hilean.

8.4. tarifa. Bainu geriatrikoa emateko zerbitzua: 5,09 euro bainua.

8.1 eta 8.2 tarifak aplikagarri dituzten zerbitzuak egunero erabiltzen ez badira, prezio publikoa erabileraren arabera izango da.

II. ERANSKINA

AHALMEN EKONOMIKOA NAHIKOA DEN ZEHAZTEA

I. eranskineko prezio publikoak indarrean dauden bitartean, zerbitzu baten erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa nahikoa dela ulertuko da eranskin honetan ezarritako kasuetan.

Hobariak zehazteko 5.1 artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela ulertuko da ahalmen ekonomikoa, III. titulua-ren I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kalkulatuta, hilean 1.599,00 eurokoa edo handiagoa bada.

Era berean, behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela ulertuko da pertsonaren ondare konputagarria 50.000,00 eurokoa edo handiagoa bada, nahiz eta III. tituluko I. kapituluaren arabera kalkulaturako ahalmen ekonomikoa aurreko tauletan ezarri diren mugak baino txikiagoa izan.

III. ERANSKINA**HOBARI APLIKAGARRIAK**

I. eranskinean ezarritako prezio publikoen indarraldian, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa ez duten pertsonen honako hobari hauek aplikatuko zaizkie, zerga ordenantza honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz:

Zerbitzu horiek jasotzeagatik ordaindu beharreko banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako baremo taula honetan ageri diren hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalmen ekonomikoa oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROAK)	EURO ARTE	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, EURO ARTE	EHUNEKOA
500,00 arte	0,00	0,00	500,00	3,27
600,00	500,00	16,35	100,00	5,69
700,00	600,00	22,04	100,00	7,96
800,00	700,00	30,00	100,00	11,37
900,00	800,00	41,37	100,00	12,46
1.000,00	900,00	53,83	100,00	12,50
1.100,00	1.000,00	66,33	100,00	12,50
1.200,00	1.100,00	78,83	100,00	12,56
1.300,00	1.200,00	91,39	100,00	12,56
1.400,00	1.300,00	103,95	100,00	12,56
1.500,00	1.400,00	116,51	100,00	6,87
1.599,00	1.500,00	123,38	90,00	6,87
1.599,00 eurotik gora		Gehieneko tarifa		130,18 euro hilean

Santikurutze Kanpezu, 2025eko apirilaren 11

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO